

ARANTXA, LEHENDABIZIKO ANDEREÑO

Jone Idiazabal

Bere esku balego, artikulua zeini egin diodan esan gabe bukatu beharko nuke, Francoren garaian Erreterian sortutako ikastolaren lehendabiziko andereñoa izateak garrantzirik ez balu bezala. Ziur naiz, gainera, gehienek Arantxa Idiazabal Gorrotxategiz hitz egiten ari garela asmatuko luketela.

Goierriko Gaintzan jaioa, otsailaren 22 batean, nahi izanez gero, artikulua bukatu ondoren kalkulu txiki bat eginaz jakingo duzue zein urtetan. Bere aita, Bittor, erreteriarra zuen, eta bere ama, Juanita, Idiazabalدارra, Gaintzako maistra izandakoa. Horrexegatik, Arantxa bezala, bere



Ikastola 1963. urtean sortu zen garaiko ikasle gutxi haietako batzuk.

anaia eta ahizpa diren Mikel eta Ixiar ere Gaintzan jaioak dira.

Arantxak lehenengo ikasketak amarekin egin zituen Gaintzan, eta garai hartako *ingreso*a Donostian atera ondoren, hamaika urte zituela batxilerreko lau urteak egitera Erreteriarra etorri zen Rexu, Andoni eta Bixen osaba-izeben etxera. Jesusen Alaben ikastetxean ikasi zuen libre gisa eta, lehen egiten zen bezala, kurso guztietan, Donostiako Institutuan azterketak eginaz batxilerra bukatu arte Erreterian bizi izan zen. Ez omen zuen oso argi zer egin gero, haina ama maistra izanik eta umeak asko gustatzen zitzaizkiola ikusiaz, magisteritza egiten hasi zen Donostian, ikasturtearen barruan osaba-izebekin jarraituz. Garai hartan ia lotsa ematen omen zion zer ikasten ari zen esateak, ez baitzegoen oso ondo ikusita magisteritza. Bere promozioaren artean ez omen zuen inor ezagutu hori egiten zuenik, gehienek idazkari edo antzeko lanetara jo zutelarik. Eta kitto. Bere pertsonaz anka punttatan pasa behar izan dut, ikusten

duzue, beretz hitz egitea gehiegizkoa balitz bezala. Ikastolari buruz hitz egitera pasatuko gara segidan.

Tarte horretan, Erreteriarako guraso talde bat biltzen hasia zen ikastola bat eraiki asmoz. Horrelako esperientziak Donostian urte batzuk bazeramatzan, egiten zuten lanaren oiartzuna herrietara iritsi eta gauza bera egiteko gogoaz sortzen hasia zelarik. Donostian Elbira Zipitria —izakera haundiko emakumea hura— lehendabiziko euskal andereñoa izan zen eta Karmele Esnal lehenengo ikasleetako bat. Elbirak ikasle moduan pertsona jakin batzuk besterik ez zituen onartzen: bere ustez nolabait Euskal Herria aurrera ateratzeko gai zirenak bakarrik. Berari hainbeste kostatako lana ez zuen masifikatzerik nahi, bere helburua galtzeko beldur baitzen. Elbirangana joaten zirenek bi orduko saioak egiten zituzten, hark eskola baten itxura har ez zezan, etxean egiteko lanak eman eta beste ikasle talde batera pasatzen zen.

Erreteriarako guraso talde hura osatzen zutenak, izenak ematerakoan norbait ahazten badugu ere, hauexek ziren: Pio Etxeberrianeakoa, Jaber Bagües, Bittor eta Andoni Idiazabal, Xabier Lasa, Iñaki Urkia, Jose Cruz Sarasola,



1964. urteko ikasleak Olentzerorekin. Arantxa Idiazabal ezkerrean.

Mikel Erriondo, Angel Elkano eta Iñaki Iragorri. Hauek eman zituzten lehen pausoak, batzuk gehixeago besteak gutxixeago, haina hasierako bultzada haietan guraso hauez gain garrantzi handia izan zuen On Jose Aranberri apaiza ere han zegoen.



Ikastolako beste ume talde bat hasierako urteetan.

Arantxa magisteritza egiten ari zelarik, ikasketak bukatzerakoan, sortu nahi zuten Erreterriako ikastolan lan egitea proposatu zioten. Noski, erantzuna baiezkoa izan zen, zeren berak umeekin egon edo klaseak eman nahi baitzituen, baina ez herri txiki batean, urte mordo batean puntuak osatzen zituen bitartean. Beraz, aukera polita eskaini zioten.

Garai haietan, magisteritzan euskal kultura edo ikastola zer zen ez zuten erakusten. Arantxak bazekien euskara, baina alfabetatu gabeko euskalduna zen. Berak bezala ikastolatan lan egiteko asmoa zutenak Donostiako egoitza batean elkartzeko ziren, beste zenbait gauzarekin batera euskal gramatika ikasteko. Urtebete inguru egin zuen, magisteritzarekin batera, Karmele Esnalen ikastolan praktikak egiten, han zeuden euskaltzaleen seme-alaba pilarekin ikastola bat zer zen piska bat jabetu asmoz.

Eta 1963. urtera iritsi gara: Erreterriako Oorereta ikastola sortu zen. Pio Etxeberrianeako utzitako lokal batean, urte ezberdineko 12/15 bat umek osatzen zuten talde bakarrenen andereñoa Arantxa Idiazabal zelarik. Orduko agintariek, hasiera batean ikastola gutxi zirenez, ez zituzten aintzat hartzen, ez ziren gehiegi sartzen, ikastolak hasi bai, baina berez hilko zirela pentsatzen zutela dio Arantxak.

Orain, garai haietako gauzarik onak bakarrik dituela buruan dio. Ikasle haien gurasoekin batera famili baten antzekoa osatzen zuten. Ikastola lege aldetik onartu gabeko zerbait zenez, zailtasun izugarriak zituen. Inongo materialik gabe aritzen ziren lanean, baina gauza guzti horien gaintik, ilusio handia zutenez eta oso motibatuak zeudenez, aurrera jo zuten. Orduan eman zuten pausoa ziurtasun haundirik gabekoa zen, gurasoek babestuta aurrera jarraitu arren, beraien seme-alabek ez baitzuten inongo paper legezaturik: eskolara joan ez balira bezala zeuden momentu hartan. Noski, gurasoak kezkatuak zeuden, besteak beste, besteren mailara iritsiko ote ziren edo disziplina aldetik ez ote ziren besteak bezain zuzenak izango. Baina, Arantxak dioen bezala, guraso haiei gauza asko eskertu behar diegu, beraien seme-alaben hezkuntza nolabait kolokan jarri arren, apostua egin eta aurrera jarraitu zutelako.

Ez zuten eskola berri bat euskara erakusteko bakarrik egin nahi, zerbait desberdina egin nahi zuten, proiektu berri bat, ilusio berri bat zuten. Elbira eta Karmelengandik jasotako nolabaiteko dekalogo pedagogiko berri bat erabiltzen zuten. "Beste eskoletan neska eta mutilak aparte egon arren, guk elkarrekin jartzen genituen, ez genuen libururik erabiltzen, umeen interesetik abiatuaz etxean genituen enziklopediak eta beste material batzuetatik egiten genituen lanak", dio Arantxak. Udan prestakuntzak egiten pasatzen zituzten, Frantzia ikasketak egiten, Katalunian ikastaroak, udalekuak antolatzen, etabar. Dena beraiek egin behar izaten zuten; lan handia zen, baina ilusio handiz egiten zuten. Arantxaren ustez, garai hartan askoz biziagoa zen irakaskuntza.

Gurasoak bereganatzeko gauza asko egiten zituzten. Gabonetan, kantatzeaz gain jaialdia, Erregetako jaialdia, eta esamin gisa ikasturte bukaeran beste jaialdi bat seme-alabek ikasitakoa ikus zezaten gurasoek. Noski, haserreak ere izaten zituzten iritzi ezberdinak zituztelako, disziplina zela, erlijioa zela. Ez zen batere erraza.

Hasierako urte t'erdian bakarrik egon zen Arantxa andereño gisa Erreterrian. Ondoren, Arantxa Lete, Lurdes Korta, Gema Uranga, M' Axun Etxeberria eta Maite Olaizola sartu ziren, eta Elizak utzitako Madalen kaleko lokal batera pasa ziren. Handik lau edo bost urtera, Elgoibar, Lazkao eta herri askotan ikastolak sortzen hasi zirenez, elkartasun handia zegoen beraien artean.

Lehendabiziko ikasle taldea bitan banatu zuten, lau urtekoak batetik eta bost urtekoak bestetik eta Ikastolara etortzen ziren ume berriak gazteetakoak izaten ziren. Ikastola handitzen joan zen heinean inspektoreak etortzen hasi ziren, baita Goardia Zibila inguruetan ibiltzen ere, zeren kezkatzen hasiak baitziren mugimendua indartzen ari zelako. Baina, beraiek ere inspektoreak ezagutzen zituzten, zonakoa zein zen bazekiten eta, zenbait jende martxan jarrita zutenez, abisatu egiten zuten. "Honelako hau gaur Erreterrian dabil". Eta, honela preparatzen zituzten umeak: denak zutik jarri behar zituzten, euskal probintziak zenbat ziren galdetuz gero, hiru zirela erantzun behar zuten, etabar. Hala ere, umeak beti ume, noizpait harrapatu zituzten batean ez bazen bestean. Arazo handiak izan zituztela gogoratzen du Arantxak.

Arantxa Donostiara Karmele Esnalengana joan zen bezala, Erreterriako Ikastolara Oñati, Azpeitia, Elgoibar, Zaldibia eta abarretik etorri ziren zer egiten zuten ikustera. Kartila edo agiririk ez zeukatenez, gurasoeri konfidantza





Gida batzorde ezberdinetako kide batzuk. Zutik, bigarrena eskubitik Arantxa Idiazabal.

eman asmoz muntaia batzuk prestatuak omen zituzten, umeak ikasten zutela erakutsi nahian, herriz herri titiritero gisa ibiliaz. Erretereriako Ikastola nola hasi zen kontatzeaz gain, lehendabiziko ikasle taldetik batzuk eramaten zituzten, Xabin, Joxeba e.a. gurasoen aurrean jarri eta beraien urteei zegozkien Espainiko eskoletako programaziotik galderak egiten zizkieten zer ikasten zuten ikus ezazaten. Normalean gurasoak ez ziren ausartzen eta Arantxak eta egiten zituzten galderak. Bazekiten zer ikasle eraman, eta galdera zailenak zeini egin ere bai. "Islandiaren hiri burua, zein da?" Eta Reykjavik erantzun ondoren eta horrelako beste galdera pare batekin, gurasoak aho zabalik geratzen omen ziren. Eta, horrela, hori guztia piskanaka konpontzen joan zen.

Ikastolaren istorian garrantzi handiko bi une izan ziren: bata, 1968an legezatu zirenekoa; eta, bestea, 1970ean irakaskuntzako lege berria sortu zenekoa. Legezatu zituztenean, zalantza asko izan omen zituzten zeren bazekiten ikasleei ziurtasun bat ematen zietela, baino kontra, jarraipen zorrotzagoa egingo zutela. Eta hor ere aurrera ateraz ziren. Eta lege berriarekin zetorren aldaketaren ondorioz, institutuan bederatzi urterekin egiten zen *ingresoko* esamina hamalau urte arte ez zen egin behar. Beraz, beste patxara bat zeukaten beraien programazioak eta pentsatutakoak egiteko. Euskara, euskal kultura eta beste zenbait gauza lantzeaz aparte, erdaraz trebatu behar zituzten azterketa hura gainditzeko.

Zabalkundearekin batera, jende asko etorri zitzairen eta horrek arazo batzuk eragin zizkien, ez baitzeuden hori dena jasotzeko prestatuta: irakasleak aurkitu, lokalak bilatu, etabar. Toki ezberdinetan egon behar izan zuten. Euskara menderatzen ez zuten haurrak ere etortzen hasi ziren. Noski, hasieran gutxi zirenez, euskaldunen arri-muan errezagoko euskalduntzen zituzten. Dena den, euskara menderatzen ez zuten ikasleak gehiago izan zirenean, ordea, adarretatik heldu eta garaian garaiko erantzunak emanez aurrera jo behar izaten zuten. Arantxak argi du: haurrek institutuetakoa azterketetan besteek adina maila

ematen zuten, beraiekin ondo ikasten zutenak aurrera joaten ziren eta beraiekin gaizki zebiltzanak gero ere arazo handiagoak izaten zituztela. Hori toki guztietan gertatutakoa zen, noski.

Eta zer esan hasieratik hona izan diren aldaketa ugariak? Azken batean, bizitzak izaten dituen aldaketan isla besterik ez da Ikastola. Oso zirkunstantzia desberdinak daude eta eskolek, beste gauza askotan bezala, momentura egokitu beharra izaten dute. Adibidez, lehen edozein etxetan hiru edo lau seme-alaba aurki zitezkeen; gaur egun, ordea, bat edo bi gehienez, horrek dakarren guztiarekin. Material aldetik lehen ez zegoen ezer eta orain, aldiz, material dexente dago; jarduera desberdinetan parte hartze gaur egun aukera asko dago, ikasleengan dispersioa sortzeko arriskuarengatik, guztietan parte hartzerik ez badute ere.

Arantxaren esperientziak dio -36 urteko esperientzia, alajaina- beraiek aspalditik egiten zituzten gauza batzuk beste eskolek gaur egun egiten dituztela. Besteak beste, beraiek haur gutxiarekin osatzen zituzten ikasgelak, ikasleekin izandako tratuz eta giroaz gozatuz, masifikaziorik gabeko gelak sortuz. Ikasgelatik kanpo euskara lantzeko egiten ziren ekimenak gaur egun ere egiten jarraitu behar dira, zeren urtero ume desberdinekin lan egiten baita. Bi urteko umeak onartzen hasi zen Ikastola, eta orain beste ikastetxe guztiek onartzen dituzte. Elbira Zipitriaren metodologiaren ondorioz ("Sei urterekin hamarrera arte, zazpirekin ehunera arte"), hasieratik, ingurukoek eragiketa luze horietakoak egiten zituzten bitartean, matematika era desberdinean erakusten zen, eta gaur egun testu liburuak ikastolak egiten hasi ziren haietaz lagunduta daude argitaratuta.

Orokorrean, gaurko ikasle eta gurasoek ez dakite zer nolako oztopo izan zuten hasieran. Irakasleen artean ere badago ikastolan lanpostu bat besterik ikusten ez duenik. Gaurko ikasle gehienak garai hartako euskaltzaleen seme-alabak dira, eta irakaskuntza normalizatu baten barruan eskolaren aukeraketa egiterakoan ikastola aukeratu dute.



Kilometrotako kilokolore logoa landu zuten bosgarren mailako ikasleak.

Badago beste multzo bat euskararen behar piska bat dagoela ikusten duena, eta hori ziurtatzen duen eskola oraindik ikastola denez, haurrak hara bidaltzen dituena. Ikusten denean hauek norbaitek euskara alorrean ez duela behar adina aurreratzen, gurasoek umea piska bat motibatu beharko luketela esaten zaienean, ikastolara horretara bidaltzen dutela erantzuten omen dute. Egia da oraindik, euskara alorrean arazoak izan arren, beste zenbaitek baino maila hobea edo ziurragoa eskeintzen duela, zeren metodologia aldetik hori lantzen urte asko baitaramatza ikastolak. Eta edozein motatako zailtasunak dituzten umeekin miraririk ezin da espero. Gurasoak beraiekin egotea da bidea, egunero lagunduz, telebistaren eragina zerbait baztertuz. Haurrak motibatu egin behar dira; ikastolara ere gogorik gabe joaten dira, eta gero andereñoak haserre aditu behar izaten du, gogo falta sortuz.

Halere, Arantxak ez du gogo falta: umeekin egotera eskolara joate hori oraindik gustokoa du. Gainera, jubilazio aurreratu batean ezingo luke pentsatu ere egin, zeren lehendabiziko hamar urteak kotizatu gabeak baititu.

Eta Arantxari zor diodan, nere ustez zor diogun begiruneagatik, eta Ikastolarekiko egin duen lana eta eraman duen jarrera txalotu asmoz, artikulua hau idaztea beharrezko iruditu zitzaidan. Dena den, horrela planteatu banio ezet borobila jasoko nuen beldurrez, berarekin erabilitako argudioa aurtengo Kilometroen ekitaldia izan zen. Eta hori pixka bat mamitzera noa jarraian.

Kilometroen funtsa bi puntutan ikusten du Arantxak. Bata, euskaldun guztiak elkartzeko une aproposa; euskararen inguruan joera askotako jendea dago, eta festaren inguruan euskalduntasuna ospatzeko balio du. Eta bestea, aldiz, oro har dagoen diru arazo garrantzitsuari lagungarri zaiolako.

Gaur egun ikasleen kopurua estabilizatua dagoela uste du Arantxak, baina eskeintza maila mantendu nahi denez (kirolguneak, ordenadoreak, eraikuntzen berrikuntza, zerbitzuen eskeintza, etabar) eta kostuak dirulaguntzak baino haundiagoak direnez, diru sarrera guztiak beharrezkoak izaten dira.

Kilometroak egun bateko ekitaldia izan arren, urte osoko lana eragiten du eta, marketinaren munduan bizi garenez, irudia zaintzeak zenbait jenderi ahalegin handia dakarkio, baina beste guztiak egiten badute guk ere egin behar. Eta aurtengo Kilometroetan garrantzia ikasleei ematen ari zaiela dio: azken batean, Kilometroetako edo ikastolaketako protagonista nagusiak ikasleak dira. Adibidez, *Kilokolore* deritzon logoa bosgarren mailako ikasleek landua da; proiektu handi baten barruan, justizia eta bakearen inguruan jaialdi bat antolatzen ari dira, Irlanda, Kroazia eta beste hainbat tokitako umeekin batera zuzeneko partaideak izango direlarik. Eta beste zenbait ekintzatan ere parte hartzen ari dira zuzenean. Ikastolaren historia islatuko duen erakusketa ere prestatzen ari dira. Eta, noski, beste herrietako Kilometroetan egin diren kirol jarduerak, bertso saioak, musika ekitaldiak, etabar ikusi ahal izango ditugu.

Nire ustez, orain arteko nire artikuluetan azaldu diren emakumeek zuten berezitasun edo garrantziaren zikloa bukatuta zegoen, eta beraietaz errezago agurtzen nintzen. Baina, Arantxak, Ikastolari dagokion zenbait gauza ulertzea zaila egin arren eta zenbait erabakirekin konforme ez egin arren, Ikastola berea ere balitz bezala bizi izan duenez, aurrera egin eta egingo dio. Beraz, niri bururatzen zaidan agurra hauxe da: euskara eta heziketaren alde berak egiten duenaren erdia egingo bagenu, euskaldun gisa eta orokorrean gizaki moduan etorkizun hobea izango genuke. Eutsi goiari, Arantxa!